

**KARMELDARREN ORDENAREN
BERREZARPENA ESPAINIAN**

Behin eta berriro hitz egiten da gaur egun oroipen historiakoaren garrantziaz. Lehenaren haria, arbasoek ehundu duten historia ez da sekula ere ahaztu behar. Karmeldarren historiak orrialde goresgarriak ditu; goresgarriak eta horietariko batzuk gure artekoek idatziak gainera. Markina¹ bihurtu zen une horretan, 1868 inguruan, munduko Karmeldar guztien ardatz.

Karmeldarren Ordenaren Berrezarpena Espainian jarri diongu izenburua lantxo honi. Julen Urkizak bildu eta argitaratu ditu lau liburuki handitan gertakari historiko honen dokumentazioa eta gutunezko harremanak. Hark izenburu hau jarri dio: “Reimplantación del Carmelo Teresiano masculino en España. Documentación y correspondencia entre los fundadores (1867-1882)”.

Dokumentazio honetan hiru gai nagusi edo etapa ageri dira:

1. liburukian: “Comienzos en Marquina, bajo la amenaza de nuevas expulsiones (1867-1870)”.
2. liburukian: “Hacia la unión de toda la Orden”.
3. liburukian: “La primera expansión (1876-1882). 1ª parte”.
4. liburukian: “La primera expansión (1876-1882). 2ª parte”.

¹ Markina erabiltzen dugu soilik eta ez Markina-Xemein. Gaur eguneko izen ofiziala hau izan arren, garai hartan bi udalerrri baitziren Markina eta Xemein.

3. eta 4. liburukiek etapa berbera dute aztergai eta liburuki bakarrean sartzeko asmoa zuen biltzaile eta ikertzaileak, baina ia 1.450 orrialde izango zituela eta bitan banatzea erabaki zuen.

Zer dela eta “Reimplantación” izena? Egia esan, gure artean “Restauración” izena erabili izan da XX. mendean barrena ia beti eta argitalpen honetan ere, 4. orrialdean, latinezko izenburua honela dator: “Monumenta Restorationis Ordinis”. Dena dela, “restauración” izen hori ez zen hainbat historialariren gogoko gertatu eta Markinan hasiera izan zuenari “refundación”, “nuevo Duruelo” eta antzeko izenak ematen hasi ziren. Dokumentazioaren biltzaile, ikertzaile eta argitaratzaile izan den Julen Urkizak berak ez zuen egokitzat jotzen “restauración” izena; *Vinculo* izeneko gure arteko barne-argitalpenean hau dio: “Se ha decidido utilizar la expresión Reimplantación en vez de la de Restauración, pues esta palabra está cargada de significados que no corresponden al acontecimiento que se narra en los documentos”. Nik idazlan honetan ‘reimplantación’ hitza ‘berrezarpena’ itzuli dut euskarara.

Lan handi honen sorrera

Julen Urkizak, 1992an, Markinako Karmeldarren komentuarren historia idatzi zuen, Patxi Uribarren Ordenako kideak eginitiko itzulpenez euskaraz argitaratu zena: *Karmeldarrak Markinan* (1691-1991). Historia eta agiriak. Larrea-Zorrotza, 1992, 936 orr. (Karmel-Sorta, 5). Hura idaztean orain argitaratu dituenetariko dokumenturik gehienak ezagutu eta erabili behar izan zituen, batez ere Villafrancako kondeak gordetzen zuen Karmeldarrei buruzko dokumentazio handia. Hala ohartu zen historiako gertakari distiratsu haren, hau da, Ordenaren berrezarpenaren, dokumentazioa argitaratzea komeni zela. Historialari baten senaz garbi ikusi zuen gertakari haren garrantzia eta, lehendik ezagutzen zituen gutun eta dokumentazio ugariak gainera, berriak bilatzeari ekin zion ohiko ahalegin eta kemenaz.

Bilaketa eta bilketa lan hau, *Karmeldarrak Markinan* liburua idatzi zuenez gero, ez da segidakoa izan. Etenuneak izan ditu eta bitartean, bakarrean nahiz elkarlanean, Julen Urkizak beste lan garrantzitsu asko argitaratu ditu, esaterako, Ordenaren historiako lanak, Euskal Herriko Elizaren historiakoak (*Elizaren Historia Euskal Herrian. Ikerlan-materialak*), Ordenako santu eta autore espiritualen obrak (Ana San Bartolome Dohatsua, Santa Teresa Benedikta-Edit Stein...), zenbait euskal idazleren lanen argitalpenak (Fraile Bartolome Santa Teresa, Santi Onaindia, Lino Akesolo, Sabin Muniategiren olerki guztiak, *Euskal Bertso eta Olerkien bibliografia...*).

Dena dela, dokumentazio bilaketa eta bilketa lana, etunekina egin izan arren, sekula ere ez du eduki guztiz alde batera utzita. Betiere gogoan izan du egiteko hori eta aukera zuen guztian heldu izan dio. Oraintsu izan du abagunea horri denbora luzeagoz eta berariaz ekiteko: Euskal Herriko Karmeldarren, hau da, Nafarroako San Joakim Probintziaren, sorrerako hirugarren mendeurrena, 2006. urtean izan dena, abagune ona zen horretarako.

Pixka bat lehenago, *Provincia carmelitana de San Joaquín de Navarra. Carmelitas en Euskal Herria* (siglos XIII-XX) liburua idatzi zuen Antonio Unzueta eta Angel Fdz. de Mendiola Ordenako historialariek elkarlanean. Mendeurren horren tesuinguruan (1706-2006) ezartzen du prestatzaileak gure oroi-pen historikoa gordetzeko funtsezkoa den obra handi honen argitalpena. Efemeride honek elkarrekin egin dugun bide luzea oroitarazten digu; hala ere, baziren lehenagotik Karmeldarren komunitateak gure lurraldean, Gaztela Zaharreko Probintziari erantsiak zirenak; hauetatik lehenengoa Iruñekoa zen (1587). Fraide Karmeldarrak baino lehenago Moja Karmeldarrak sartu ziren Iruñean (1563), Santa Teresa hil ondorengo lehen urtean egindako fundazioa.

Hiru mendetan barrena, karmeldarren elkargo honetan pertsona gogoangarriak sortu dira, Kristori eta Elizari emanda bizi

izan direnak eta beren ibilbidean bizitza, maitasun, zerbitzu, kemen eta itxaropenezko etsenplu harrigarri eta ezin ahaztuzkoak eman dituztenak. Batez ere haiei eskainita dago dokumentuen argitalpen eder hau.

Edukiaren ikuspegi laburra

Argi utzi nahi du prestatzaileak, errealitate hau ikuskizun eta marketinetik at gelditzen dela, baina bizi harrigarritz betea dagoela, dokumentuetan behin eta berriro nabari denez. Hiru mendeko aro honen erdialdean gertakari iraultzaileak izan zirela diosku, zoritxar eta heriotza ugari ekarri zituztenak, kalte espiritual eta kultural handiekin. Erlijiosoak komentuetatik egotziak izan eta haien etxe eta ondasunez Gobernuak jabetu ondoren, gurutze-bide luzea hasi behar izan zuten milaka erlijioso gizonezkoak XIX. mendearen erdialdean. 2.100 fraide inguru ziren garai hartan. Karmeldarren gotorleku antzera, Gobernuaren aginduetara erortzen azkena Markinako komentua izan zen, 1839ko irailaren 18an.

30 urte inguru geroago, hiru mende hauetako historiaren gertakaririk ikusgarrien eta garrantzitsuena etorriko da: Fraide Karmeldar Teresiarren Berrezarpena Espainian. Horren guttioren hasiera eta eragilea Markinako Karmel izan zen, A. Silverio Santa Teresarena historialari karmeldar gaztelarrak “Segundo Duruelo”² deitu zuena. Markinan Ordena berriro ezartzea eta fundazio honen iraupena 1868tik 1872ra bitartean harrigarriak izan ziren eta oso larriak, garai hartako egoera sozio-politikoagatik.

Markinako fundazio eraberritua egitea eta egoera sozio-politiko zail hartan irautea ia miraria izan bazen, ez zen gutxiago mirestekoa komunitate honek bi urte geroago, 1874an, Erro-

² Duruelo Avilako auzoa da; Karmeldar Teresiarren historiari betiko loturik geldituko zena, han eman baitzioten hasiera karmeldar-biziera berriari San Joan Gurutzekoak eta honen bi lagunek, 1568an, Santa Teresaren asmoa egia bihurtuz.

man lortu zuena: *Ordena osoaren batasuna*. Artean Karmeldar Oinutsak bi Kongregaziotan zatiturik zeuden. Zatitzeko prozesua 1596an hasi zen eta 1600eko azaroaren 13an finkatu, Klemente VIII.a Aita Santuaren *In apostolicae dignitatis culmine* brebearen bidez. Horrela, bi Kongregazio ditugu, Espainiakoa eta Italiakoa. Bi Kongregazioek lurraldez zabaltzeko esparru propioa zuten, eta legeak emateko eta formaziorako araubide ezberdinak. Santa Teresaren espiritua interpretatzeko eran ere bazituzten alde nabarmenak, esaterako, Italiako Kongregazioak misioak onartzen zituen; Espainiakook, ordea, kontenplaziozko bizitza jartzen zuen guztien gainetik.

Karmeldar ikasle gazteak asko ziren eta fundazio berriak egitea behar-beharrezkoa zen. Ahaleginak egin ziren batez ere 1871tik 1873ra bitartean. Bilboko Abandon, Frantziako Tolosan eta Kantabriako hiru lekutan ahalegindu ziren. Baina, ahaleginak ahalegin, ez zen fundazio berririk egiterik lortu. Oztopoak bi ziren batez ere: bata, Gobernuaren kontrakotasuna, Madrileko egunkari batzuek berri faltsuz zirikatua, gerra karlistak aitzakiatzat harturik; eta bestea, Elizaren aldetik Espainian fundazioak egin ezina, 1600eko brebea baliogabetu ezik Italiako Kongregazioak ez baitzuen eskubiderik Espainiako Kongregazioaren lurraldean sartzeko.

Markinako fundazioa kasu berezia izan zen, Pio IX.a Aita Santuak berariaz baimena emanik egindakoa; beraz, Italiako Kongregaziokoa zen. Horrela, egunetik egunera bi Kongregazioen batasuna beharrezkoago sumatzen zen. Hil edo biziko baldintza zen batasun hori fundazio berriak egin eta Markinako komunitatean nabari zen bizi-indar gero eta joriagoari bide emateko. Argi zuten helburua eta erlijiosoan eta Villafrancako Kondearen ahaleginak hortik zihoazen, batez ere 1874. urtean.

Vatikanorengandik Ordenaren batasuna erdiesteko ahaleginan ziharduten Markinako Komunitateko fraideak eta Kondea Ordenaren Erromako nagusien jarrera bitxi batekin aurkitu zi-

**REIMPLANTACIÓN
DEL CARMELO TERESIANO MASCULINO EN ESPAÑA**
Documentación y correspondencia epistolar de los fundadores
(1867-1882)

TOMO I
COMIENZOS EN MARQUINA
BAJO LA AMENAZA DE NUEVAS EXPULSIONES
(1867-1870)

Edición preparada por

JULEN URKIZA



Roma
TERESIANUM – PIAZZA S. PANCRAZIO 5A
2007

ren. Hauek ez zuten batasunerako gogo handirik agertzen. Ordenaren batasuna lortzeko ez zuten, behintzat, zirkinik ere eginen; are gehiago, orduko egoeragatik-edo batasunaren kontra agertzen ziren.

Hala ere, aipaturiko protagonista haiek, eragozpen guztien gainetik, lortu egin zuten Pio IX.a Aita Santuagandik Ordenaren batasunaren Dekretua (1875-II-12). Une honetatik aurrera Makinako Karmel izango da, ez bakarrik Fraide Karmeldar Teresiarrek Espainian berrezartzeko abiapuntua eta zabalkunde-ko erdigunea, baita Ordena osoaren batasunaren eragile eta bultzatzailea ere. Bi gertakari hauek guztiz funtsezkoak izan ziren Ordenaren garapen historikoan.

1875eko otsailaren 12an Pio IX.a Aita Santuak Karmeldarren bi Kongregazioak, Espainiakoa eta Italiakoa, batean biltzen zituen “Lectissimas Christi turmas” brebea eman ondoren, Markinako Karmeldarrek zabalkunderako bidea libre ikusi zuten. Orain egin zitzaketen fundazioak lehenago Espainiakoa Kongregazioak izandako lurraldean, batasuna burutua izanik ez baitzen debekuzko lurralderik. Lehenengo osatu zuten komunitatea Larreakoa izan zen 1876ko ekainean eta urte berean Avilakoa eta Palmako Basamortukoa. Pixka bat geroago Burgoskoa (1877), Segoviakoa (1877) eta Alba de Tormeskoka (1878).

Ordenaren lehen zabalkundearen gidari nagusia A. Pedro Jose Jesus Mariarena (Alkorta) izan zen, Markinako semea. Honen eta gainerako fundatzaileen ahaleginik handienak lehenengo karmeldarren komentuak berreskuratzeko izan ziren, batez ere Gaztelako leku santuak, Santa Teresarekin eta San Joan Gurutzekoarekin zerikusia zutenak, berreskuratzeko.

Fundazio berriak egiteko eskariak ugari ziren, bai Espainiatik eta bai handik kanpo. A. Pedro Jose probintziala ohartu zen argi ibili beharra zegoela, indarrak alferrik galdu gabe, hain Probintzia zabalean zehar pertsonak al baito ondoen antolatzen. Gure inguruan bertan Begoñako Karmelo izan zen le-

hen fundazio berri-berria (1880). Dokumentu hauetan ageri denez, A. Pedro Josek, etorkizunari begira, adiguriz eta maitasunez eratu zituen gauza guztiak fundazio honetarako. Lehenago Karmeldarrak zeuden lekuetan ere egin ziren ahaleginak komunitateak sortzeko, esaterako, Korellan (1878-1879), Iruñean (1879), Sevillan (1881-1884) etab.

Dokumentu hauetan, zehazki esanda laugarren liburukiko dokumentuetan, biltzen dira Probintziaren zabalkundeari dagokion bi gertakari garrantzitsu: Amerikan egin zen lehen fundazioa, Habanan (1880) eta hamaika erlijiosoz osatutako taldea Indiara bidaltzea (1883). Pixka bat lehenago ere, 1878an, hiru erlijioso izan ziren Indiara bidaliak.

Lehen liburukian obra osoari dagokion sarrera luzea dator eta han bost kapitulu hauek aurkezten dira: 1. Documentación de 16 años (1867-1882). 2. Actores principales. 3. Conservación y transmisión de los documentos. 4. Resumen del contenido de la documentación. 5. Criterios de la edición.

Norentzat den obra hau

Argi esan behar da bilaketa, bilketa eta ikerketa lana dela. Lan handia, harrigarria. Ordenarentzat, Nafarroako San Joakim Probintziarentzat, Markinako Udalarentzat eta batez ere historialarientzat opari baliotsua. Karmeldarren historiako garai eta gertakari garrantzitsuen dokumentazioa dator hemen. Ez du irakurle askorik izango, baina garai hau eta Karmeldarren historia aztertu nahi duenak nahitaez kontsultatu beharreko obra da. Hasieran esan dugunez, oroipen historikoa berreskuratzen lagun dezakeen obra garrantzitsua. Julen Urkizak, arnasa luze-ko argitalpen honi ekitean, gure aurretiko haiei betiko monumentu espiritual bat eraiki nahi izan diela esango nuke eta benetan lortu duela bere helburua.

Luis Baraiazarra Txertudi